IZENA ETA IZANA EZBAIAN

EUSKAL IZENDEGIA ETA SEXUAREN ARABERAKO BEREIZKERIA

GIDA PRAKTIKOA

BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



Proiektuaren koordinazioa, idazketa, zuzenketa:
Idoia Trenor Zulaika
Iratxe Esnaola Aldanondo
Libe Eizaguirre Agoues
Saioa Iraola Urkiola
Maketazioa: Inder Bhatti Azkoaga

Euskal Herrian, 2016ko apirilean
www.bilgunefeminista.eus
info@bilgunefeminista.eus

Aitortu-Partekatu

IZENA ETA IZANA EZBAIAN

EUSKAL IZENDEGIA ETA SEXUAREN ARABERAKO BEREIZKERIA

GIDA PRAKTIKOA

Emagin eta Euskal Herriko Bilgune Feministak elkarlanean sortutako “IZENA ETA IZANA EZBAIAN: GIDA PRAKTIKOA” duzu eskuartean, pertsona izenek duten balio sinboliko eta eraikitzailearen garrantzia jendarteratzeko eta gogoetarako tresna izan nahi duena.

Ponte-izenen inguruan egon diren gogoeta feministak zabaldu, bizipenetatik abiatuta izenen aukeraketetan egon diren arrazoiak jaso, egungo izendegiaren arautzea ikuspegi feministatik begiratzeko parada eskaini, izenen binarismoaren inguruko gogoeta zabaldu eta, izenak jartzeko arautegian, zirrikituak azalarazi eta desobedientziarako ateak irekitzea dira gure asmoak.

AURKIBIDEA

Hizkuntza eta generoa....9

Nondik datoz gure izenak?....13

Zer dio legeak?....19

Desobedientzia Zibila....23

Estrategien gida....27

1. Ospitalea: Ospitaleetako inskripzioak bidelagun....28

2. Frogatzeak: Baliatu izen abstraktuak, fantasiazkoak, toponimikoak edo izen arruntak....28

2.1. Fantasia edo fikzioa: inoiz fikziozko lanen batean izendapen hori duen pertsonaiaren bat azaldu izana....29

2.2. Toponimia: Izen hori toki baten izena dela frogatzea....30

2.3. Bestelakoak....30

3. INE: Baliatu Espainiako Estatistika Institutu Nazionala!....30

4. Erregistroa: herriaren arabera egoera alda daiteke. Hartu ziaboga zure alde! 31

5. Erabilera: Erregistroan araua onartu, sozializatzean nahi bezala deitu!... "Hoixe ingoet ta punto!"....32

6. Inoiz ez da berandu… Genero markarik gabeko izenaren alde....32

7. Genero-markarik gabeko izenak erabiltzeko erabakimena: epai sozial eta moralez bustia....35

IZAENDEGIA 37

HIZKUNTZA ETA GENEROA

Mintzairak, bere izate zein eginkizunen artean, askotariko funtzioak betetzen ditu Amaia Alvarez Uriaren arabera; horien artean:

- Errealitatea interpretatu eta sinbolikoki sortzeko balio digu.
- Nortasunaren eta identitatearen garapenerako ezinbesteko tresna dugu.
- Hizkuntza, poliki bada ere, garaiaren arabera egokitu eta moldatzen doa. Aldatu egiten da.

Hizkuntzak errealitatea sortzen duela esaten badugu, errealitatea alda dezakegu berau aldatuz gero.

Hizkuntzak errealitatea eraikitzen duen eran, ponte-izenek pertsonak eraikitzen dituzte. Pertsona-izenek funtzio bikoitza dute: norbanakoa izendatzeko funtzioa dute batetik, eta pertsona hori, jendartean eta harreman soziopolitikoen sare batean ala bestean kokatzen dute, bestetik.[1]

Beraz, izaera indibiduala eskaintzeaz gain, nortasun soziala ere transmititzen dute. Ponte-izenek, pertsona baten sexu, genero, adin, klase eta nazio identitateari buruzko informazio baliotsua ematen digute. *Adibidez: Donostiako kale batean galduta dabilen bost urteko haur bat topatuko bagenu eta izena Suhar edo Álvaro duela esango baligu, hari buruzko oso irudikapen desberdinak egingo genituzke.*

Kultura eta herri kolektibitate guztiek, euren izendegiak sortzeko joera dute. Izenek nolabait, metafora jokoen bidez, komunitatean pertsona zer den adierazten digute.

1

ALVAREZ URIA, Amaia (2004). "Euskara hizkuntza sexista al da? ", Iritzi-muinetik, 2004-03-08.

Garaian garaiko eta lekuan lekuko erakunde handienek (Elizak, Estatuak…) pertsona izenak arautu dituzte eta horrek, balio handiko tresna direla erakusten digu.

"Izendegiek egunerokotasunean emakumeak eta gizonak sortzen dituzte". Idurre Eskisabel Arratibelen hitzek gogoratzen digute, izenak sexuen arabera bereiztean jendarteko genero-sistema binarioa erreproduzitzen dugula eta bereizketak norbanakoaren eraikuntzan eragin zuzena duela.

Beraz, hizkuntza ideologia kontuan hartu behar da. "Hizkuntza ideologia erabiltzaile den komunitate horrentzako hizkuntzak esanahi kulturala hartzen duen irudikapen multzoa litzateke, taldearen eta norbanakoen irudikapenen interakziotik munduaren ulermen zehatzak eratuko dituena. Ideologia horren oinarria gizonak eta emakumeak desberdinak direla nabarmentzea da eta desberdintasun dikotomiko hori naturatik eratorria dela finkatzea, hots, izaeraren berezko ezaugarri bat dela. Hizkuntzaren erabilera zuzenaren gaineko adierazpenek agertzen dute hizkuntza ordena gordetzeko gogoa, baina, aldi berean, beste arlo batzuk ordenatu eta kontrolatzekoa." [2]

2

ESKISABEL ARRATIBEL, Idurre. Jakin 202. Izena eta izana, euskal izendegia eta sexuaren araberako bereizketa.

NONDIK DATOZ GURE IZENAK?

Euskal Herrian izendatzearen eskumena norengan egon den jendarteratzeko asmoz eta euskal izendegiaren historia ezagutzeko, Jose Mari Satrustegiren lanari jarraituz, historian zehar egon diren izendegiak denbora lerroan kokatu ditugu.

Antzinaroan, izendatzea gurasoen eskumena zen eta ohikoa zen haurrei aita-amen izena jartzea. Kristautasunaren etorrerarekin, Elizak hartu zuen izendatzeko autoritatea, eta honek, aitabitxi-edo amabitxiengan utzi zuen haurrak izendatzeko eskumena. XVIII. mendean, familia askotan, izen berbera zuten haurrak aurki zitezkeen. Aitak aukeratzen zituen garai hartan semeen izenak eta amak alabenak. Jaiotza egunari zegokion santutegiko izena jartzeko ohitura ezarri nahi izan zen, baina Euskal Herrian, izenok arrotzak ziren herritar askorentzat.

XX. mendearen etorrerarekin, izen politak jartzeak hartu zuen garrantzia eta moda berriak Espainiako Gerra Zibila hasi arte iraun zuen. Emakumeentzat, belarrira atsegin gerta zitezkeen izenak jartzen ziren. Izen haietatik asko "-ina" atzizkiaz amaitzen ziren (Josefina esaterako). Mendearen erdialdera berriz, izen bikoitzak bihurtu ziren ohikoak, denok ezagutzen ditugun, "Jose Luis" edo "Mari Carmen" bezalako izenak.[3]

Egun, izendatzeko eskumena gurasoengan dagoela esan daiteke eta izenak, gehienbat, gurasoek atsegin dituztenak izaten dira, nahiz eta modak ere badauden; haurrei herri-nortasunari lotutako izenak jartzekoa, adibidez. Gainera, XX. mendearen erdialdetik aurrera izen ugari baliagarri izan dira neskak zein mutilak izendatzeko; esate baterako, Hodei, Lur, Amets, Aitziber eta abar.

3 SATRUSTEGI, J. "Pertsona izenen historia". euskaltzaindia.eus

EUSKAL HERRIKO HISTORIAN ZEHAR EZAGUTU DIREN IZENDEGIAK

1781-1783 “Euskal Herriaren Adiskideak”.

1876 “JOANATEGI”.

1887 Sabino Aranak erdal izenak itzuli, “Egutegi Bizkaitarra” lanean.

1910 Luis Elizaldek Sabinoren lana borobildu.

Diktadura garaian Goierriko Euskal Izenak bilduma.

1966 Euskal Izendegia, Euskaltzaindiak lehen aldiz izen zerrenda kaleratu. Bertatik, Euskal Izendegia atera. Aingeru Irigarai.

1972 “Giza-emakume Izendegia” Jose Mari Satrustegi.

ardo · Delfina · Arantza · Nerea · Iosu · Jasone · Oir

1977	“Euskal Izendegia” , bigarren argitalpena.
1983	“Euskal Izendegia;” hirugarren argitalpena.
1998	'Euskal izenak' - Mikel Hoyos.
1999	Euskal izendegi bateratua' - Urtzi Ihitza.
1999	'Izendegia' - Xarles Bidegain.
1982tik gaur egun arte	Seaskaren egutegia - Seaska.
2001	Patxi Salaberri eta Mikel Gorrotxategi euskaltzainek idatzitako izendegia.

)inatz·Aduna·Aberri·Zeru·Garai·Ihitz·Abodi

ZER DIO LEGEAK?

Egun, euskal izendegiaren afera, euskal lurraldeen zatiketa administratiboak bereizten du, eta horregatik, Ipar Euskal Herrian eta Hego Euskal Herrian, legea desberdina da. Ipar Euskal Herrian, Frantziako Estatuko legea ezartzen da eta honen arabera, gurasoengan uzten da izena hautatzeko eskumena, hau da, haurrari edozein izen jar diezaiokete umearentzat iraingarria ez den bitartean. Hegoaldean, berriz, izendegiak Espainiako Estatuko legedia jarraitzen du eta dio, izenak, lehen unetik, izendatua emakumea ala gizona den argitu behar duela.

Euskaltzaindia da Hego Euskal Herrian euskal izendegia arautzen duen erakundea. Baina, araudi hori, zein irizpideren araberakoa da? Nola eta zeren arabera arautu ditu izenak Euskaltzaindiak? Nahiz eta erakunde honen webgunean euskal izendegiak historian zehar ohikoak izan direla onartu, proposatzen duen izen zerrenda 2015. urtekoa da eta aurretik egon diren euskal izendegiez baliatu da berau osatzeko.

"Zerrenda ontzean gogoan izan ditugu aldioro hizkuntzaren aldetikako egokitasuna, izen-eramaileari zor zaion duintasuna eta beharrezkoa den sexu bereizketa." (Knörr, H). Euskaltzaindiak izendegia arautzeko irizpideak Espainiako legeak ezartzen dituenetara egokitu direla aipatzen du.

Euskaltzaindiak, gainera, zenbait izendegi baztertzen ditu sexu-bereizketaz arduratzen ez direla argudiatuz. Honela, bere webgunean, izendegia arautzeko erabilitako irizpideen zerrenda bat eskaintzen du. Izenen jatorria, hizkuntzarekiko errespetua eta zuzentasuna aipatzen dira, baita sexu bereizketaren irizpidea ere. Azken honek dokumentuaren azpi-atal bat osatzen du.

Euskarak gizonentzat izen batzuk eta emakumeentzat beste izen batzuk erabiltzen dituela diosku, jarraian adibide batzuk emanez. Salbuespen gisa, genero mozioa izan duten izenak

ere aipatzen ditu (Bizente/Bizenta, Joanes/Joana), baina ez du aipatzen, egun euskaraz baditugula izen ugari, gizon zein emakumeenak direnak. Ez du aipamenik egiten, arautuak dituen arren, gizon zein emakumeentzat balio duten izenen inguruan.

Euskaltzaindiak zehazten dituen moduan: *"Aintzat hartu dira proposatzen diren izenetan, erabileraren eta hizkuntzari dagokion zuzentasunaren arteko oreka. Hitz arruntetatik eta toponimoetatik hartutako ponte izenen sexu bereizketa, tradizioari segituz egin da, kontuan izanik izen arruntek euskaraz ez dutela genero gramatikalik. Hori dela eta, printzipioz, kontsonantez eta –i, –o, –u bokalez amaitutakoak (Haritz, Ibai,...) gizonezkotzat ematen dira, eta –a, –e dutenak berriz, (Ganeta, Iluntze, Loyola,...) emakumezkotzat. Baina tradiziozko printzipio honek baditu bi salbuespen. Batetik, Andre Mariaren santutegiak direlako, emakume izentzat ematen direnak (Aitziber, Irantzu, Izaskun,...) eta, bestetik, gure historian gizonezkoak izendatzeko erabili direnak, besteak beste, Gartzea, Otsoa, Sendoa,...".*[4]

4 GORROTXATEGI NIETO, Mikel. Euskal izendegia gauzatzerakoan erabilitako irizpideak. euskaltzaindia.eus

DESOBEDIENTZIA ZIBILA

Desobedientzia zibila betidanik lotu izan da arlo publikoarekin (kalea, instituzioak, etab). Eta, gainera, ematen du eremu publiko horretan gertatzen den orok guztioi eragiten digula, eta aldiz, eremu pribatuan ematen diren egoerak pertsonalak direla, alegia, bakoitzari bere modura eragiten diotela. Alta, mugimendu feministaren ekarpen handienari eutsiz, *pertsonala politikoa da;* feministontzat eremu pribatuan gertatzen den oro bada politikoa, bada arautua, ze estatuak arautzen du, nahiz eta lege arau idatzirik beharbada ez dagoen.

Estatuak arautzen du askatasunaren bermatzaile dela, baina askatasuna mugatzen du kalean, espetxean, instituzioetan. Baina askatasuna mugatzen du aldi berean etxean- sistematikoki zaintza lan guztien karga emakumeon gain jarriz-, harreman sexu afektiboetan- emakume/ gizon binomioa sostengatuz, heteroaraua indartuz- eta emakumeon gorputzetan eta gure eguneroko hautuetan. Beraz, estatuak idatzizko legeez gain behar ditu bestelako arau sozial eta moralak bizirauteko.

Desobedientzia zibila, eskubide zibil eta politikoetan oinarritzen da, eta hauek eremu publikoan definitu izan dira. Eskubide zibil eta politikoak, aldiz, Frantziako iraultza ondorengoa dugun hiritartasunaren definizioaren arabera eraiki dira eta hasiera batean emakumeok eta esklaboak kanpo utzi gintuzten. Olympia de Gougesk 1791an egin zuen *Emakumeen eta Hiritarren Eskubideak deklarazioa*, zeinetan, lehenengo aldiz emakumeon eskubide zibil eta politikoak jaso ziren. Dokumentu ez ofiziala izan zen hura, noski. Hauexek dira egun ezagutzen ditugun Giza Eskubideen aitzindariak.

Feminismotik, bai Giza eskubideei eta bai hiritartasunaren kontzeptu hertsi horri ekarpenak egin dizkiogu, ezinbestekoa baita guretzat eskubide zibil eta politikoen definizioa zabaltzea.

Honela, emakumeak ere integratzen joan gara eskubide zibil eta politikoen definizioan. Ematen baitu estatu batek ez dituela arautzen etxetako sukaldeak, kaletako espaloi ilunak, gure gorputzak edota gure izenak. Eta bai arautzen dituela uste dugu, arautzen ditu egunero bitarteko anitzen bitartez. Emakumeok bizi dugun zapalkuntza gordinari aurre egiteko, bizirauteko erabili izan dugu derrigorrez desobedientzia zibila. “Desobeditu ala hil”. Honela, bide honetan mugimendu feministatik egin dugun bidea ikaragarria izan da, bidelagun izan dugu desobedientzia jarrera gisa eta ekintza eta lan molde berritzaileak erabili izan ditugu.

Mugimendu Feministatik XIX. mendetik aurrera desobedientzia zibilaren jarrera eta praktika landu izan da, izan sufragisten borrokan, izan abortuaren aldeko borrokan, edota izan transexualitatearen aldeko borrokan. Hortaz, desobedientzia zibilaren aitortza berretsi eta jarrera kolektibo eta politiko gisa aldarrikatu nahiko genuke.

Honenbestez, genero eraikuntzan izenek duten garrantziaz jakitun bagara, eraldatzeko dugun gaitasunean sinetsi eta beste errealitate bat eraikitzeko boteretzea ezinbestekoa zaigu, jaiotzen garen momentutik genero eraikuntza bizi osoan zehar garraiatuko dugun marka ez dadin izan.

Desobeditzeko jarrera duten milaka pertsona geldiezinak dira. Baliatu dezagun, bada, indar hori genero-markarik gabeko izendapenak egin eta balio eta identitate berri eta parekideagoak sortzeko.



ESTRATEGIEN GIDA

Ekintza orok bere ondorioak dakartzala jakinik, jarraian izenen bidez desobeditzeko estrategia batzuk bildu ditugu, desobeditu nahi duen edonorentzat lagungarri izan daitezen. Estrategiok, esperientzia anitzetatik eratorri ditugu eta hauen bidez zu ere izenen aukeratze kontzientea egitera gonbidatu nahi zaitugu.

1. Ospitalea: Ospitaleetako inskripzioak bidelagun.

2015eko Urritik aurrera jaiotzen inskripzioei buruzko arautegi berria aplikatzen hasi dira EAEn. Pentsatzekoa da ospitaleetan inskripzioak egiteko bide hau permisiboagoa izan daitekeela, osasun zentroetako langileak malguagoak izan daitezkeelako ezagupen gutxiago eta erantzukizun gutxiago dutelako gaiaren inguruan. Jakina, Erregistro Zibilaren gainbegiratzearen mende daude inskripzioak, baina izenak datozkien bezala onartzea errazagoa gerta daiteke. *Hala bedi!*

2. Frogatzeak: Baliatu izen abstraktuak, fantasiazkoak, toponimikoak edo izen arruntak.

Bada aukera pertsonaia historiko, mitologiko, legendazko edo artistikoen izenak ipintzeko, izan horiek unibertsalak, izan Espainiako nazio edo eskualderen batekoak. Aldi berean, izen geografikoak eta dozein izen abstraktu, izen arrunt edo fantasiazko. Betiere sexu bereizketa oztopatuko ez duten neurrian onartzen dira aipatuak, baina euskararen ezaugarriak tarteko, zailagoa da mugak ezartzea. ***Begira datozenei!***

2.1. Fantasia edo fikzioa: inoiz fikziozko lanen batean izendapen hori duen pertsonaiaren bat azaldu izana.

Maren izenaren kasuan, fikziozko izen baten gisa aurkeztu zuten, sarean aurkitutako informazioa froga gisa hartuz.

"Lehenago etorri zan jakitea....hurrengon jakin genun neska zala....ta nik izen bat nahi nion jarri ya(...)abixatuta geunden...geratu nintzen lagun batekin...lankide batekin aurkitu zan eta bere alabakin zeon, Maren izena zekan eta esan zian pues kontuz, ze Euskaltzaindiak, *que tuvo que testificar, llevar la partida de nacimiento de alguien* ta ordun, horrekin demostratzen zenun kulturak edo historiak ba bueno Maren neskantzat baliagarria dala *y como con eso ya te aceptan*(...)ta bueno gero esantzian *que en noruego Maren significa mar en castellano*(...) bai izantzala sorpresa erregistroa jun con la partida de nacimiento y que ya no valia, que horrekin ya ez(...) gañea eztizue esaten hau ezin dezakezu in, baina hau in dezakezu(…)ta esan nion *se que Maren en Noruego significa Mar, y me dice ya, pues entonces tienes que demostrarlo*. Ta ordun atea nitzan hortik Errenderiko kafeta jun ta hor hasi nitzan beiratzen ta Maren danesez ta norbegiarrez, *ahí hay como dos cosas,* alde batetik, *que era una diosa malefica*. Ta beiratu nun iturria izan zan prolatino.es (…) *era como super absurdo ir al juzgado, con el papel de prolatino.es,* ta administratibak eman zion epaileko idazkariari eta deitu zun epailera (…) ta hor bai onartu zuten."

Ruben eta Nerea, Orereta.

2.2. Toponimia: Izen hori toki baten izena dela frogatzea.

Kasu honetan, Itxaso mutiko izentzat jartzeko, herri izen bat zela frogatu zuten.

“Erregistroa jun giñan kasu bat bazeola.....ta ezetz ta ordun esantzigun, herri baten izena baldin bada, ibai baten izena, ipuin bateko pertsonaia, beste herrialde batean Itsaso mutilantzat erabiltzen bazan ta hango enbajadan papelak ta eztakit ze..(...)Ta etxea etorri giñan eta haurdunaldi guztiyan in ez genuna, txoakei bat zala, Googlen Itxaso jarri genun (tx-kin?) bai, tx-kin eta Naparruako herri bat zala. Ya Itxaso zan, jaio ta bi egunea ze gainea ez geunden ezkonduta....izantzan un cristo! Ta hamar minutun etxea etorri ta pun. Erregistroa bueltatu eta herri baten izena da (...) egiya da arrazoi dakazue ta holaxe izantzan prozesua.

Arbil, Zarautz.

2.3 Bestelakoak.

3. INE: Baliatu Espainiako Estatistika Institutu Nazionala!

INE-ren web orrialdean Estatu Espainiarrean jarri izan izan diren izenen estatistikak kontsulta daitezke probintziaka. Bertan sartu eta froga dezakezu ELUR, MAREN, ARATZ, IOAR edo AMAIUR bezalako izenak neskei zein mutilei jarri zaizkiela. Erregistroren batean izenen bat ukatzen badizute, froga dezakezu beste erregistro batzuetan INEk onartu izan duela! Hartara, iritziz aldatzea errazagoa gerta daiteke.

4. Erregistroa: herriaren arabera egoera alda daiteke. *Hartu ziaboga zure alde!*

Jakin nuenetik haurdun nengoela izenak bilatzen hasi giñen, ta bueno Sua iruditzen zitzaidan, bere esanahiagatik, oso ondo islatzen zuela gure momentua (…) Ez genuen genero marka zuen izenik nahi, generoak izena markatu zezan (…) identitate bat ematea garrantzitsua zen eta sexuak baldintzatuko ez zuena (…) Ematen du normakin puskatzen duna… ematen du puskatzen dutelako jendeak ez duela onartzen izena, baina geure izenak Lore eta Ander bere garaian apurtzaileak ziren eta...Herri txikia izanik Ataunen ez genuen arazorik izan erregistroan, hortaz ere kezkatu giñen hasiran, baina bagenekien erreztasuna zegoela. Ez da erreztasuna, ….berea gure alde dago, erregistrokoak dio euskal izenak ez dutela sexurik izan eta legeak esaten du "el nombre no puede ser ni peyoratibo ni indigno para la persona" berak esaten du hori errespetatzen dela (…) Premeditazioa izan zan, bagenikielako Ataunekoa. Abizena ere Loreana dute lehenengoa, bere aldetik erregistrokoak erraztasuna. Arazoak, arazoak ez ditugu izan izenagatik, baina, bai kritikak. (Nola sentiarazi zizun?), berdin zitzaidan, ni gustora nengoen izenarekin eta nire haurdunaldiarekin (…) Identitateko lehenengo..ez dakit nola definitu … marka. Nik badaukat lagun bat orain emakumea dena, baina zergatik aldatu behar du orain izena? Badaude izenak, Amaia aldatu behar dituzunak zergatik? Badaude izenak betirako direnak, Sua.

Lorea eta Ander.

5. Erabilera: Erregistroan araua onartu, sozializatzean nahi bezala deitu!...*"Hoixe ingoet ta punto!"*

"Jutenaiz Zuhaitz izena, ez Zuhaitz izena ezin daiteke izan. Zeatikan ez? Zuk erabakiber al dezu ze izen eukiber dun ba nire umiak? Ta, ez, nik ez, Euskaltzaindiak. Ah bai hobeto, ta zeatik erabaki ber du ba Euskaltzaindiak ze izen dakan nire umiak? Ea zer da neska? Pues nahi duna izangoa ez?....neska o mutila o astua baldinbada ere, ze inportau? Nik Zuhaitz nahi baldin badiot deitu, pues Zuhaitz deitukoiot.

Ez, ez, ez, Euskaltzaindiak jartzen du ZuhaitzA izanber dula...bueno...ba hortxe, nahi baldin badezu rekurso bat jarri dezakezu, ze rekurso ta ze ostia! Eske benetan e momentu esan nun bitu jata airian, eztet registratuko umia! Ta geo esan nun jode tio bah, total papelak dia. Ba in ta geo nik nahi deten bezela deituko diot, asike... Euskaltzaindia ez da etorriko nere etxea Zuhaitz deitzeyoten bakoitzian Zuhaitza da esatea, pues ez, ordun jajaja… Hoixe ingoet ta punto! … Oseake Zuhaitza jartzen du paperetan, geo beak aldatu nahi dunian, ba aldatukou ....."

Miren, Azkoitia.

6. Inoiz ez da berandu ... Genero markarik gabeko izenaren alde.

Erabaki nuen ez nuela umetatik izendatzen ninduten generoarekin gehiago izendatua izan nahi. Pentsatu nuen bazela unea nik erabakitzeko. Izenak asko identifikatzen gaitu genero zehatz batera. Nire kasuan, izena erabat asmatu beharrean, erabaki nuen izenaren parte bat erabiltzea eta Lore izatetik Lo izatea iragatea.

Lo ez da asko entzun ohi den izena eta genero aldetik kuriositatea pizten du. Nik Lo erabiltzen dut transa kontsideratzen naizelako. Gero, jendearen erreakzioetan ohartzen naiz mutila izango naizen ala ez barruntatzen ari direla. Izenaren laburdura ote da? Zertarako da? Izena mote bezala hartzen dutenean onartuagoa da, baina nire izen aldaketa beste eremu batzuetara eramatean ez hainbeste.

Nahi dudanean Lo erabiltzen dut eta nahi dudanean Lore. Aukeran. Nire aurka joango den esparru batean ez dut Lo erabiliko. Testuinguru guztietan Lo ez erabiltzea batere konplexurik gabe egiten dudan gauza da. Ez da erraza hau gestionatzea oso sartua baitugu koherente izan beharra. Ni koherente izango naiz nire sentimenduekin. Esaterako, N.A.N.a erabili behar den eremu formal batean ez dut Lo erabiliko nekagarriagoa izango delako. Ez da behar bat. Aukera edukitzea da potentea. Nahiz askotan aukera hau ez den ondo ulertzen lagunartean eta. Batzuetan izen berrian aldeko apologia egin behar da, jajaja!

Izenak bi generotan banatzeak muga asko jartzen du. Ideologikoki gauzak pentsatzeko, gauzak egiteko modua … Dena mugatzen du. Eta mugatzen duen neurrian ez zait ondo iruditzen. Aske, lasai eta pozik bizitzeko bidean oztopoa da. Oharkabean mundu ikuskera hau irensten dugu eta kontziente garenerako, batzuetan, beranduegi da. Pena da orain arteko izen neutroak galtzera uztea, euskararen ezaugarri bat delako, eta bestalde, binomioa indartzen duelako. Izan ere den-dena binomio horrek sailkatua dago!

Askoz hobeto biziko ginateke hori ulertuta, eta gainera, askeago izaten eta bestelako borrokak aurrera eramaten ere lagunduko liguke.

Lo, Zarautz.

Txikitan, jadanik, sentitzen nuen nire izenak ez ninduela ordezkatzen. Ni ez naiz Lola! Familiako beste kide batzuk ere izen bera zuten baina ni ez nintzen emakume sentitzen. Bestalde, ez nuen bilatzen nire izen berriak maskulinitatea ordezkatzerik ez naizelako transexual sentitzen. Baina, aldi berean, nire burua definitzerakoan ez naiz neska bat. Egiatan, nahiago nuke jendartea bi generotan banatzen duen sistema hau existituko ez balitz. Ez generorik, ezta izenak generotan banatzerik.

18 urterekin nire Sarita kolegak festan genbiltzala Lo bezala aurkeztu ninduenean, esan nuen: Ostia! Noski! Hori bezain erraza zen! Lo! Hori bai. Lo deitzen naizela diodanean mundu guztiak dio: “Lo de qué!” eta nik erantzun: “de lo que quieras!” jajajaja.

Beti Lo izenez aurkezten dut nire burua, egoera burokratikoetan salbu. Ez dit eragozpenik sortzen egunerokotasunean ez baitaude presente. Baina egoera barregarriak badaude. Esaterako, medikuarenera banoa eta Dolores izenez deitzen badidate, altxatzen naiz eta mundu guztia begira geratzen da: Hori al da Dolores! Hala deitzen didatenean kanpotik bezala sentitzen dut nire burua, ni ez banintz bezala. Orain ez dut denborarik sentitzen emozionalki erregistroetan izena aldatzen saiatzeko, baina etorkizunean egin nahi nuke, gorputzeko atalik aldatzeko beharrik sentitzen ez dudan moduan, horren beharra bai sentitzen baitut.

Lo, Kanariar Uharteak.

7. Genero-markarik gabeko izenak erabiltzeko erabakimena: epai sozial eta moralez bustia.

Oihanak eta Unaik, euren seme-alabei izen neutro bana jartzeko erabakia hartu zuten: Kai eta Anitz. Bi kasuetan argi zuten: irizpideak izen euskaldunak eta neutroak izatea ziren. Hala gaineratu du Oihanak: "Bi kasutan nik garbi nuen ez nuela sexuari egotzitako izen normatibo bat nahi, ez dakit norainoko garrantzia izango duen izenak gure identitatean baina garbi nuen ahalik eta gutxienen markatu nahi nituela izenarekin". Aldiz, kurioso gisa izendatzen du eta berretsi egiten du izenek generoaren eraikuntzan duten garrantzia: "Kaik ile luzea duenez… neskatzat hartzen dute beti eta Anitzek aldiz ez dituenez belarritakorik eta bere anaiaren arropak eramaten dituenez askotan mutila dela uste dute. Kaik ere Anitz mutila dela uste du". Erabat iraultzailetzat jotzen du Maite edota Arantzazu mutil bati jartzea eta Mikel edo Jon neska bati. "Azken finean, izen neutroak zentzu batean sistemak onartzen ditu, nahiko normatiboa da, berez edozein izen jarri beharko genuke sexu biologikoa alde batera utzita". Haurrak jendarteratzeko orduan familian kasu nahiko lan izan dituztela adierazi du. "Anitzekin batez ere, batez ere ongi ahoskatzeko zailtasunagatik. Unairen familia kanpotarra izanik euskal izen *normalago* bat errazago onartuko lukete (Maite, Anne…). Familiarekin talka izan dugu izenarekin, ilearekin, belarritakoekin, arropa kontuekin…. Puuff… oso aspergarriak eta astunak!". Haurren sozializazio prozesuan eta Kairi dagokionez (Anitz oso txikia delako), eskolan hasi denetik sexuaren indartze bat sumatu diote. "ama, ni mutila naiz, ezta?". "Bestela, ez du inongo arazorik izan, nahiz eta hamaikatan esan izan dioten neska dela". **Oihana, Iruña.**



IZAENDEGIA

Sortu genero-markarik gabeko zuen izenak. Orain arte erabili diren izen guztiak asmatuak dira eta gure izanean eragina dute. **Erabaki, ba, izAna izendatzeko izEna.**
Hona hemen proposamen batzuk:

Ahaltsu
Anari
Ahots
Asata
Aske
Bide
Bihotz
Biok
Bizi
Dena
Esku
Festa
Gladys
Huntza
Ilar
Irail
Jabe
Kaxilda
Klito
Libre
Lili
Mari
Martxo
Maiatz
Nor
Odol
Otsail
Oxanda
Polit
Ruda
Sen
Towanda
Uki
Ulu
Uztail
Xarbota
Zura
Okene
Ulia
Haika
Iraun
Zizta
...



MILESKER
MODU BATERA
EDO BESTERA
PROIEKTU HONETAN
PARTE HARTU DUZUEN
GUZTIOI





DOKUMENTAZIO ETA IKERKUNTZA ZENTRO FEMINISTA

EMAGIN

euskal herriko
bilgune feminista